

# begira



34 zk.  
2015eko uztaila

 **ULMA**

Elkarrizketa Raul  
Garcari. ULMA Taldeko  
lehendakaria

ULMA Taldeko beste  
talentuak








ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
**ULMA Constructionen sistema autoigokariak** errendimendu betean.

ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
**Topaketarako uneak eta guneak**  
ULMA Pipingin.



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
ULMA Agricolaren **berotegiak klima tropikalerako.**



ERREPORTAJEA.  
**ULMA Architectural Solutionsek 25 urte** bete ditu.



ERREPORTAJEA.  
**ULMA eta 2016 Donostia Europako Hiriburutza; IDEIA LEHIAKETA**



## 2015eko uztaila

04 **albisteak eta gaurkotasuna**  
ULMA Agricolak webgune berria estreinatu du Responsive diseinuarekin

Fruta izoztua enbasatzea ULMA Packagingen eskutik

14 **aurrez aurre**  
Raul Garcia. ULMA Taldeko lehendakaria

16 **erreportajea**  
ULMA Architectural Solutionsek 25 urte bete ditu

18 **erreportajea**  
ULMA Gara, Batzarraren ikuspegi berri baterako ahotsa eta irudia

20 **erreportajea**  
ULMA eta 2016 Donostia Europako Hiriburutza; IDEIA LEHIAKETA

22 **erreportajea**  
ULMA, protagonista handia HISPAC-BTA azokan

24 **erreportajea**  
ULMA Taldeko beste talentuak

26 **agenda eta iradokizunak**



### KOLABORATZAILE TALDEA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,  
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,  
Irene Moreno, Edurne Unzueta,  
Romu Artecheta eta Karlos Alzola.

### Argitaratzailea:

Grupo ULMA S. Coop.,  
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.  
20560 OÑATI.

Tel.: 943 25 03 00.

Fax: 943 78 09 17.

Posta elektronikoa: [begira@ulma.com](mailto:begira@ulma.com).

### Diseinua eta maketazioa:

Marka, Komunikazio eta EES Arloa.

Inprimategia: Gertu S. L.

Euskarazko itzulpena: EMUN Koop.E.



Paper ekologikoa





## ULMA PIPING

### Topaketarako uneak eta gunek

Denok dakigunez, maiatzeko hilabeteen egiten dira ULMA Taldeko Batzar Nagusiak. Horrez gain, hainbat hitzaldi informatibo egiten dira Batzarren aurretik, eta ondoren bazkariak eta gainerako bilkurak. Kontuak kontu, egiazki, guztiak dira topaketarako gunek eta uneak.

Aurten, Forjan, ohi baino denbora tarte laburragoan egokitu zaigu ekitaldi horietara joatea. Gure Batzar Nagusia maiatzaren 8an egin zen, eta ULMA Taldeko lehena izan zen. Apirilaren 29an, goizeko saio batean eta arratsaldeko beste batean, eta apirilaren 30ean arratsaldean, hitzaldi informatiboetara joan ginen. Giro ona izan zen guztietako erabateko

ezaugarria, aurreko urteetan baino jende gehiagorekin, hitzaldi gehiagorekin eta parte hartze aktibo eta biziagoarekin. Batzar Nagusia ere modu positiboan garatu zen, urtero bezala, eta ondorengo bazkari apartarekin amaiera ezin hobea eman zitzaion ekitaldiari.

Maiatzaren 8an, gainera, ULMA Forjako erretiratuen urteko bazkaria egin zen. Aurreko urteetan ere gertatu den bezala, aurtengoan ere masiboa izan zen Etxe-Aundira joateko deia emandako erantzuna. Bertan izan zirenek esan zigutenez, bazkaria ohi bezala igaro zen, harmonia onean, eta gure kideek hainbat urtetan partekatutako uneak eta pasadizoak

gogoratu eta disfrutatzen aukera izan zuten.

Amaitzeko, maiatzaren 15ean, ULMA Lazkaon hitzaldi informatiboak egin ziren, eta horiek ere asistentzia eta parte hartze handiarekin garatu ziren.

Hemendik eskerrak ematen dizkizuegu topaketarako gune eta une horietan parte hartu duzuen pertsoneri.

**Datorren urtean ere elkartzen garen pertsona kopurua ez dela txikiagoa izango espero dugu!**

## ULMA HANDLING SYSTEMS

### Rio de Janeiroko Nazioarteko Aireportuak ULMAren sistema izango du ekipajeen tratamendurako

**Rio de Janeiroko (Brasil) Nazioarteko Aireportuaren lizitazio prozesuak ULMA Handling Systemsi esleitu dio ekipajeak tratatu, ikuskatu eta sailkatzeko prozesua zabaltzeko proiektuaren diseinua, hornidura, instalazioa eta martxan jartzea.**

Proiektua berritzeko plan anbiziotsu baten barruan kokatzen da, eta helburua da 2016. urtean hiri kariokan Olimpiadak jokatu direla eta espero den bidaiari kopuru handiari harrera egitea.

ULMAK instalatuko duen sistemak fakturaziorako 62 mahai izango ditu, bi zirkuitu berri maila askotako ikuskapenak

egiteko, eta sailkatzeko abiadura handiko lerro bat, helmugaren arabera, ekipajeak garraiatuko dituen formazioko 8 karruseletako batera.

Horrez gain, ULMAK SAC sistema garatuko du, ekipajeak sailkatzeko esleipena kudeatuko duena, baita SCADA sistema ere, instalazio osoaren monitorizazioa ahalbidetuko duena. Proiektuaren bitartez, Rio de Janeiroko Nazioarteko Aireportuak orduko 3.000 ekipajera handituko du bere ahalmen logistikoa. Proiektua 2016. urteko apirilera amaituta egongo da.

Zalantzarik gabe, ekimena mugari garrantzitsua da ULMA Handling Systemsentzat, segmentu altuko aireportuen merkaturan sartzeko aukera ematen baitio.



## ULMA TALDEA

### Nazioartekotzeko estrategia, giltzarria ULMA Taldearen emaitzetan

Arazoak arazo, 2014. urteko ekitaldia pozgarria izan da ULMA Taldearentzat, salmenta bateratuak 666 milioi eurora iritsi baitira, horietatik %77 nazioarteko merkaturan duen partaidetzari esker. Azken urteetan salmenten jaitzierak eragindako ondorio negatiboa arindu ahal izan da, egindako ahalegin handiari esker, bai ULMA Taldearen nazioarteko posizionamenduari dagokionez, bai arriskuaren dibertsifikazioari dagokionez.

Ekitaldiaren amaieran 4.324 pertsona ari ziren ULMA Taldean lanean, horietatik %80 baino gehiago bazkideak, eta %49 inguru nazioarteko filialetan.

Aurtengo urteari begira, ULMA Taldeko Negozioek beren garapen planak mantentzen dituzte, oinarritzat hartuta nazioarteko hedapena, berrikuntza eta jarduera berriak, urteko salmenta mailak handitzeko helburuarekin, 719 milioi eurora iristeraino.



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Atusak 2020 arte berri du ULMArekin duen alokairu kontratua

ATUSA enpresa taldea liderra da munduan burdina malguzko osagaien fabrikazioan, eta ULMA Orga Jasotzaileetan jarri du konfiantza berri bere alokairuzko parkea berritzeko orduan.

Orain dela ia mende bat sortu zelarik, ATUSA enpresa taldea hainbat sektoretara zuzendutako produktuen fabrikazioaren eta banaketaren abangoardian dago, horien artean egonik sanitarioa, berokuntza, jariakinen garraioa, eraikuntza, elektrikoa, etab.

Bere 3 fabrikazio plantetan 1.100 pertsona baino gehiago okupatzen ditu 8 herrialdeetan, eta zazpi biltegi ditu Europa osoan barreiatuta; bere produkzio ahalmena 30.000 t ingurukoa da eta, bere banaketa sare inartsuari esker, lehentasunezko hornitzaileak dira mundu zabaleko 40 herrialdeetan.

ULMA Orga Jasotzaileak, halaber, orain dela hamarkada bat baino gehiago, ATUSAren organ hornitzaile nagusia da, eta erantzun azkarrean eta arreta pertsonalizatuan oinarritutako zerbitzua eskaintzen dio. Harremana bilakatzen joan da denborak aurrera egin ahala, bezeroarekin

eskakizunetara egokitzeko, eta urteen poderioz lankidetzara sendo bihurtu da, enpresari azken berrikuntzei buruzko aholkua emateko konfiantzan oinarrituta, beren zerbitzuak hobetzen jarraitu ahal izateko produktibitateari eta eraginkortasunari dagokienez.

**BEZEROAREN BEHARRETARA MOLDATZEKO MALGUTASUNA.**

ULMAK ATUSArekin urte hauetan izandako harremanaren ezaugarria lortutako malgutasun handia da, makina berriz zein berregokitutako makinaz osatutako mix bat baita, behar berezien arabera. Berrikuntzan parte hartuko duten 42 unitateen artean daude diesel bidezko kontrapisatuak, 2 tonatik 4 tonara arteko ahalmenekin, eta horien helmuga fundizioaren arloa izango da; kontrapisatu elektrikoak, mekanizazioaren arlorako, eta barruko orga atzeragarriak, pilotzaileak, eskariak jasotzekoak eta traspale elektrikoak biltegiaren eremurako.

Bi enpresen arteko interakzio etengabea, bezeroak ematen duen konfiantza eta soluzio pertsonalizatuak eskaintzeko orduan ULMAren erantzutako arintasuna dira bi enpresen arteko harreman iraunkor honen arrakastaren giltzarria.



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionek “Asfalto hormigoizko diseinuaren 5. lehiaketa nazionala” babestu du Mexikon

Mexikoko Zementuaren eta AC Asfaltoaren Institutuak (IMCYC) eta AC Ingeniaritzako Fakultate eta Eskolen Elkarte Nazionalak (ANFEI) “Asfalto Hormigoizko diseinuaren 5. lehiaketa nazionala” antolatu zuten joan den maiatzaren 21ean, Mexiko Hiriko Banamex zentroan, Concrete Show México”-ren barruan.

Lehiaketa 2011z geroztik egiten da, eta oraingoan 76 unibertsitate eta zentro teknologikotako 124 ekipok baino gehiagok parte hartu dute. Asistentzia 600 pertsona ingurukoa izan da, herrialde osoko ikasleen eta irakasleen artean.

ULMA Constructionek ekitaldia babestu du, eta 450 pertsona hartzeko ahalmena



duen harmaila bat muntatu du, 3 modulutan, BRIO norabide anitzeko aldamiorekin, betekizun horretarako moldagarritasun eta erresistentzia handiagoa eskaintzen duelako.

Aldamioaren osaera 2,50 luze diren moduluetan oinarrituta dago, altuerako 0,50 m bakoitzeko 1,02 m-ko sekzioekin. Horrenbestez, egitura adeitsua izan zen okupatzaileekin, tranpalez hornitutako plataformek aulki lau moduan zein paserako gune moduan balio izan baitzuten. Arreta berezia jarri zen diagonalen kokapenean, publikoaren erosotasuna bermatzeko, eta horrela egitura zurrin bat lortzeko, bertaratuen mugimenduak eta ibilera errazteko.

Egin beharreko kalkuluak egiteko egiazatu egin zen aldamiorearen osagai guztiek kargak jasango zituztela, eta segurtasunari buruzko faktoreak bermatuko zirela, harmailen diseinuak ekitaldiko jarduerak eragozpenik gabe jasan ahal izateko.

ULMA Constructionen helburu nagusia da goi mailako hezkuntza erakundeekin lankidetzan aritzea, herrialdeko ingeniariak zibileko ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari dagokionez, etorkizuneko eraikuntzako profesionalak izango baitira, nahasturen diseinuaren bitartez hormigoiak eraikuntzan duen erabilera ezagutu dezaten.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Architectural Solutionsek KOMO ziurtagiria lortu du bere drainatze kanaletarako

ULMA Architectural Solutions enpresak polimero hormigoizko soluzio arkitektonikoen aukera zabala garatzen du, eta orain **KOMO** ziurtagiri entzutetsua lortu du bere drainatze kanaletarako.

Ziurtagiria lortzeko beharra enpresak bere drainatze soluzioak Holandako merkatuan sartzea planteatu zuenean agertu zen. **KOMO** ezinbesteko egiaztagiria baita herrialde horretako proiektu publikoetan zein pribatuetan eskaintzak egin ahal izateko. Jatorrian, **UNE-1433 Arauaren** aurrekoa izanik, eraikuntzarako erabilitako produktuen kalitatea bermatzeko moduan zen.

Ziurtagiria lortzeko eta ondoren mantentzeko azterketa hain osatua eta zorrotza izanik, ziurtagiria beste herrialde batzuetan ere hartzen da aintzat, esaterako, Alemanian. Azpimarratu behar da urtero 6 ikuskapen gainditu behar direla **KOMO** mantentzeko, eta kalitatearen beste batzuk ziurtagiri batzuk mantentzeko, berriz, urtero ikuskapen bat egin behar da, esaterako, ISO 9001 Arauan.

#### KONPROMISOA KALITATEAREKIN

Kalitatearen aldeko konpromisoa da gure baliorik garrantzitsuenetakoa. **Kalitatea eta berrikuntza** bultzatzen ditugu proaktiboki, etorkizunerako berme bakar moduan. Gure pertsonen konpromisoan bermatzen diren faktore estrategikoak izanik.



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### ULMA Orga Jasotzaileak dossier korporatibo berria estreinatu du



Bezere bakoitzarentzako irtenbidea eskaintzea, tratu pertsonalizatuaren bitartez, profesionaltasunez eta konpromisoarekin: hori da enpresaren oinarrietakoa. ULMA Mantentze Zerbitzuetako hiru dibisio nagusiak ere (Orgak, Erabiliak eta Ordezkoak) protagonista dira karpeta korporatibo honetan.

Dossier berria katalogo batez eta hainbat eskuorri osatuta dago, eta hainbat testuinguru eta behari erantzuteko

diseinatu eta gauzatu da, eta, helburuko bezerearen arabera, komertzialki aurkeztu dakieke matrizeari, hau da, ULMA Orga Jasotzaileei, eta baita gainerako filialei edo negozio unitateei ere.

Proiektuaren ezaugarriak dira diseinu garbia, edukien koherentzia eta interrelazioa, banaketa orekatua eta material grafiko ona, eta horren ondorioz gehienbat praktikoa den lan tresna komertzial eguneratua eta baliagarria lortu da.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Componentsek bere proiektu digital berria abiarazi du: [www.ulmaconveyor.com](http://www.ulmaconveyor.com)

Webgune berriak aurreko urtean egindako hausnarketa estrategikoari erantzuten dio, eta horretan, giltzarri moduan, Negozioaren garapena eta nazioarteko finkapena jasotzen zen. Ildo horretan, webgunean beste bi hizkuntza gehitu dira, frantsesa eta alemana, baita nabigazio intuitiboa ere, eduki berrietan errazago sartzeko.

ULMA Conveyor Componentsen harremanetarako bideak eta nobedadeak eskuragarriago egongo dira bere helburuko publikoarentzat, zeina batez ere meatzaritza, energia eta ingeniartzen sektoreetakoak diren, besteak beste.

Karga bakartu zein handizkakoak garraiatzeko osagaien deskribapen teknikoari erreparatuta, horien artean egonik arrabolak, girlandak, euskarriak eta danborrak, bere bezeroen izaera ikusi daiteke nolabait, hau da, oso enpresa espezializatuak dira, eta

eskakizun maila handia dute bere behar eta proiektu bereziei egokitutako ingeniartzaren garapenari dagokionez.

ULMA Conveyor Componentsek, [www.ulmaconveyor.com](http://www.ulmaconveyor.com) webgune berriaren bitartez, bere ezagutza eta soluzio teknikoak partekatzen ditu, zeinak, hein handi batean, bere ingeniartzako talde kualifikatuaren eta bezeroetako bakoitzaren arteko lankidetzaren sendoaren emaitza diren, esperientzia horiek, zalantzarik gabe, oso baliagarriak izan daitezkeelarik beren jardueraren antzeko sektoreetan garatzen dituzten bezeroentzat.



## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolak webgune berria estreinatu du Responsive diseinuarekin

ULMA Agricolak webgune berria estreinatu du, oso linea ikusgarri, eleanitz eta optimizatuarekin, mota guztietako gailuetarako.

Gure webgunea bisitatzen duten erabiltzaileek gero eta gehiago nabigatzen dute Interneten gailu mugikorren bitartez, esaterako, tabletan edo telefono adimendunen bitartez. Jokaleku berri horren aurrean, eta gaur egun webguneen diseinuan eta garapenean dagoen joerarekin bat eginda, ULMA Agricolak Responsive Design webgune bat sortu du. Diseinuaren eta garapenaren filosofia horrekin, orria ezin hobeto bistaratu daiteke, eta erabiltzen ari den gailu mugikorrera egokitzen da, nabigazio erraz eta intuitibo batekin.

Webgune berriak lehen orri oso grafikoa dauka, eta hortik sarbidea eskaintzen da gehien kontsultatzen diren sekzioetarako:

bateko eta besteko estruktura, aplikazio desberdinak, klimaren kontrolerako ekipamenduen aniztasuna eta ULMA Agricolak eskaintzen dituen zerbitzuak.

ULMA Agricolak merkatuan duen esperientzia zabalaren erakusle moduan, “Proiektuak” izeneko atal bat dago, zeinean azken urteetan gauzatutako proiekturik nabarmenen irudiak erakutsiko diren,

baita datu osagarri batzuk ere, esaterako, proiektuan erabili den berotegiaren egitura eta klimaren inguruan planteatu diren beharrei erantzuteko instalatutako ekipamenduak.

Aurkeztutako produktu edo zerbitzu bakoitzari buruzko informaziorik esanguratsuenak ezagutzeko, sartu webgune berrian.





## ULMA TALDEA

### ULMA Taldea LANBAI azokan izan zen, ikasleekin urtero daukan hitzorduan

Ekainaren 11n izan zen LANBAI III Enplegu eta Formazio Azoka, MONDRAGON Unibertsitateak LANBIDEn eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatuta.

ULMA Taldea bigarren urtez jarraian izan zen LANBAI azokan, sektore ezberdinetako beste 34 erakunderekin batera, enpresa eta unibertsitate arloen artean zubiak eraikitzeke ekimenarekin bat egin eta graduatuei lan munduan sartzea errazteko.

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean MONDRAGON Goi Eskola Politeknikoak duen egoitzan egin zen Lanbai III enplegu azoka. Azoka hau ikasketak enpresetan praktikak eginez osatu nahi dituztenei edota edozein unibertsitatetan edo lanbide eskolatan ikasketak burutu ondoren lan bila

dabiltzanei dago zuzendua.

ULMA Taldeko Giza Baliabideetako ordezkariak ikasleekin eta graduatuekin egon ziren eta gehienak elektronika, diseinu, robotika edo automotzio ingeniarietakoak, enpresen administratzaileak eta lanbide heziketakoak ziren. Guztira 144 curriculum bildu zituzten LANBAI azokaren 3.edizio honetan eta horiek ULMA Taldeko lan poltsan sartuko dira, ULMA Taldea osatzen duten 8 Negozioetan sor daitezkeen beharrei erantzun dietelakoan.



## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### ULMA Embedded Solutions, Altiumeko kideen sarean

Altiumek diseinu elektronikorako tresnak garatu eta saltzen ditu 1985az geroztik. Bere produktuak azken teknologien sortzen dira, eta ingeniari laguntzen diete diseinuaren prozesuaren kudeaketan.

ULMA Embedded Solutionsek, tresna horien erabiltzailea izateaz gain, Altium Designer tresna IBM Rational DOORSein integratzen duen egokigailu bat garatu du, eskakizunen eta hardwarearen diseinuaren arteko trazabilitate osoa lortzeko. Soluzio horrek lagundu egiten du sistemak egiaztatzen eta balioztatzen, eta ULMA Embedded Solutions Altiumeko partnerren

sarean sartzeko ateak ireki ditu.

Horrenbestez, ULMA Embedded Solutionsen gure kideen sarea zabaltzen jarraitzen dugu, eta horiek merkatuko teknikarik eta erremintarik puntakoekin ematen dizkigute, gure bezeroentzat garatzen ditugun soluzioak hobetzeko.

## ULMA PACKAGING

### Fruta izoztua enbasatzea ULMA Packagingen eskutik



Makina biltzaile bertikalean enbasatzea, hiru soldadurako kuxin formatuan.

Fruta izoztua merkatuan gero eta interes handiagoa pizten ari den produktua da, HORECA sektorean (ostalaritza, errestaurazioa eta cateringa) zein etxeko mailan frutaren erabilera errazten duelako. Irudiak erakusten duen proposamenak aukera ematen du produktu kantitate desberdinak lantzeko, behar desberdinetara egokituta. Filma inprimatzeko aukerak erakargarriago bihurtzen du aurkezpena.

Azkenaldion, ULMAk garapen berritzaileak ezarri ditu biltzeko makina bertikalean (VFFS). Makina horiek eskakizunik zorrotzenak betetzeko diseinatuta daude, eta honako ezaugarri hauek dituzte:

- Diseinu higienikoa, giro erasokorretarako prestatua.

- Albo batetik formatua aldatzeko aukera. ULMAk patentatutako aukera, makinaren albotik tutu formatzailea aldatu ahal izateko (eskuarki hori delako instalazio bertikal batean ondoen iristeko lekua).

- Erabilera erraza makinako langilearentzat.

- Oso makina irisgarria da mantentze lanak egiteko eta mantentzeko oso kostu txikia dauka.

- Kontrola PC industrial batez egin daiteke, ikusgaitasun hobearrekin, makinaren doikuntzak egiteko baita martxan denean ere.

- Bobina euskarri bikoitza bobina aldaketa automatikoarekin. Aukera horrek bobina aldatzeko lanak makina gelditu gabe egitea ahalbidetzen du

Hori guztia betiere produkzioiko parametrorik onenak lortzen saiatuz (OEE).

## ULMA AGRICOLA

### ULMA Agricolaren berotegiak klima tropikalerako



Azken hilabeteetan ULMA Agricolan Arin motako berotegiaren hainbat instalazio garatzen ari gara, Karibe, Afrika eta Amerika ekuatorialeko zenbait eskualdetan. Egitura horri egitura tropikal ere esaten zaio, klima beroko eta hezetasun erlatibo handiko eskualde geografiko horietako beharrei erantzuteko diseinatuta dagoelako. Eskaera handia lortzen ari gara, baita emaitza onak ere, modeloak eskaintzen dituen bolumen zabalei eta aireztapen bikainari esker, horien ondorioz tenperatura eta hezetasun handiek laborean eragiten dituzten ondorioak arindu egiten baitira, garapen ezin hobea lortzeko.

GP Gotiko Multikapera berotegiaren egituraren diseinuan oinarrituta, egitura honen bereizgarriak dira modulazioa 4 metrora egotea, aireztapen zenital finkoa izatea, berotegi barruko airea etengabe eta hobeto berritu ahal izateko, eta alboetan balkoiak edukitzea, "ertz efektua" minimizatzeko eta estruktura indartzeko; horrenbestez, egitura arin, indartsu eta fidagarria lortzen da.

Arin berotegiaren egitura labore karga duten proiektuetan zein halakorik ez dutenetan erabili daiteke. Labore kargarik gabeko berotegizat hartzen dira estruktura aldetik euskarri behar ez



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionen sistema autoigokariak errendimendu betean

Poloniako hiriburuaren erdian Q22 dorrea dago, Poloniako etxe orratzik garaienetakoa bat. 194 m altu da, masta barne, eta bulego erakin horrek hemendik aurrera 50.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du, 47 solairutan banatuta, horietatik 5 lurpekoak izanik.

Q22 eraikinaren diseinua Kuryłowicz & Associates arkitektura estudioaren lana da, BuroHappold poloniar bulegoarekin duen lankidetzaren emaitza. Proiektuak "Breeam Interim Excellent" egiaztagiria eskuratu du, Poloniako baloraziorik onenarekin. Ebaluazioaren irizpideen artean zeuden eragintasun energetikoa, erabilitako materialak, hondakinen kudeaketa eta lan ingurunea.

ULMA Constructionek bere



enkofratuen eta aldamioren gama zabal bat jarri du "funtzionamenduan", horien artean sistema autoigokariak protagonismo berezia hartzen dutelarik. Produktu horiekin garaiera handiko egiturak eta eraikinak eraiki daitezke, garabia erabili beharrik gabe. ATR sistemarekin lau nukleo edo igogailuetarako zulo eraiki dira, eta HWS babes perimetralekin, berriz, langileen segurtasuna bermatu da, bai aurkako baldintza meteorologikoei dagokienez, bai pertsonen zein objektuen artean gertatu daitezkeen errikoei dagokienez, horiek arrisku tipikoak baitira garaiera handiko eraikuntzetan.

Lanak 2014ko uztailean hasi ziren, eta 20 hilabete baino pixka bat gehiagoan proiektua bukatuta egongo da. Proiektuan egin beharreko obrak gutxi gorabehera 500 PLN-an baloratuta daude (120 milioi euro), eta 2016ko lehen hiruhilekoan amaituta egongo direla aurreikusten da.



duten laboreetara zuzendutakoak (loreak, barazki hostodunak, baby leaf, etab.). Labore karga dakarren instalazio bat behar izanez gero (tomatea, piperra, pepinoa, etab.), laborea eskegitzeko arranparrila gehitzen da, eta aurrealdeak besoekin indartzen dira.

Estalkirako, kasu hauetan ohikoena da sabairako plastikoa erabiltzea eta perimetroan sarea, laborea babestuta geratu dadin eta airea tasa altuekin berritu dadin. Zenbait kasutan, perimetroaren sarearen gainean plastiko bilgarria ere instalatu da.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA fatxada aireztatu, estetikaren eta uniformetasunaren berme Brasilgo Portoseguro antzokian

São Paulo hiriko erdigunean kokatuta, AIC ARQUITETURA E URBANISMO estudioak proiektatutako obra "Campos Elísios" auzoa biziberritzeko proiektuaren parte da.

Erronka zen lehenagotik zeuden bi eraikinen artean mantendu behar zen hizkuntza arkitektonikoa bideratzea, alde batetik baitzegoen Israel Sancovski arkitektoak egindako merkataritza gunearen errehabilitazioa eta, bestetik, eraikuntza berriko Antzokia. Hizkuntzen arteko harmonia hori **ULMA Fatxada Aireztatu**en sistemaren malgutasunari eta moldagarritasunari esker lortu da.

Zegoen eraikina zaharbertzetzeko proiektuari ekiteko, egitura bera zein eraikinen pilareak indartu behar izan ziren. Materialen aukeraketa ere erabakigarria izan da, horien akabera, aldaketa atmosferikoekiko erresistentzia eta instalatzeko azkartasuna.

Polimero hormigoizko **3.000 m** fatxada aireztatu instalatu dira, zehazki **Vanguard gamakoak**, P06 kolorean. Proiekturako aukera diren plaken formatua 1,80 x 0,90 m izan da, hau da, formatu handi bat, eraikinari itxura dotore ematen diona, zegoen



#### PROIEKTUAREN FITXA

- | **Kokapena:** São Paulo (SP). Brasil
- | **Jabea:** Porto Seguro
- | **Kontratatzailea:** Hochtief do Brasil
- | **Arkitektoa:** AIC ARQUITETURA E URBANISMO, Israel Sancovski (Errehabilitazioa)
- | **Formatua:** 1800 x 900 cm

dorraera eraikin berri iraunkor bihurtuta. Azpimarratu behar da ULMAren instalazio sistemari esker jatorrizko fatxada eraistea saihestu ahal izan dela.

"*ULMAk erabiltzen duen finkapen sistema malgu eta proiektu bakoitzerako moldagarriari esker, posible izan da eraikinaren zutoinetan ia 10 cm-ko diferentzia bat zuzentzea, eta gainera jatorrizko fatxada eraistea saihestu ahal izan da*", adierazi du enpresaren ordezkarikomertziala den Rodrigo Gamerok.

Eraikuntzako sistema honetan nabarmendu daitezkeen beste alderdi positiboak dira **energia aurrezte**a ahalbidetzen duela, asko irauten duela eta **mantentzen erraza** dela. Horrez gain, hainbat aukera eskaintzen ditu formatu, egitura eta koloreei dagokienez. Rodrigog nabarmendu duenez, "*arkitektoak gure*

*eraikuntzarako soluzioaren alde egitera eraman duten motiboen artean daude eskaintako soluzio teknikoak, aukera estetikoak eta eraikuntza sistemak eskaintzen duen iraunkortasuna*".

Vanguard gamak proiektu bakoitzari egokitzen zaion soluzio bat proposatzen du, plakak neurriari ebakitzeko aukera emanez eta formatu malguak. Moldagarritasuna, malgutasuna eta kalitatearen bermea dira gure gamarik abangoardistena definitzen duten giltzarriak. 10 urteko garantia dauka. Azkenik, azpimarratu behar da ULMAren Fatxada Aireztatuak LEED v3 Ziurtagiria lortzen laguntzen duela aurrebaldintza batean eta 12 krediturekin, gehienez ere 32 puntu lortu daitezkeelarik, proiektu bakoitzaren ezaugarri berezien arabera.

## ULMA PACKAGING

### Lerro bikoitzeko TSA 680 termozigilagailu berria ekoizpen handietarako

ULMAk lerro bikoitzeko modelo garatu du, TSA eraginkortasun handiko termozigilagailuen gama berriaren barruan.

Modeloa aurrez eginiko erretiluetan termozigilatzen ditu, eta plater prestatuak, haragia, hegaztiak, arraina eta barazki eta frutak lantzen dituzten sektoreetara zuzenduta dago.

Minutuko 12 erretilura arteko produktzioak lortzen ditu, zigilatze soileko K37 erretiluetan, zikloko 6 alerekin.

Azken garapen honek bultzada berritua ematen dio merkatuan hain harrera ona izaten ari den termozigilagailuen gama berriari, eraginkortasun handian, funtzionamenduaren kalitatean eta mantentzeko erraztasunean oinarrituta.



## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### SHS Stahl altzairutegirako hornidura kontratua

2014. urtean lortutako homologazioaren ondoren, ULMA Conveyor Componentsek arrabolak hornitzeko kontratu bat lortu du Saarland eskualdeko altzairutegiak biltzen dituen SHS Stahl Holding Saar altzairuaren holdingarekin.

-13.000 pertsona inguru enplegatzen dituzte.

-Urtean 4 milioi tona altzairu baino gehiago ekoizten dute.

-Negozio bolumena 4,5 bilioi euro ingurukoa.

-Völklingen, Burbach eta Neunkirchenen dituen ekoizpen zentroekin, Saarländ AG munduko ekoizlerik handienetakoa da kableak eta barrak bezalako produktu luzeen produktioan.

Kontratua 2015. urterako da, urtero berritzeko aukerarekin. Alemaniako altzairutegi batekin lehen kontratu hau lortu izana oso mugari garrantzitsua da, eta handiagoa izatea ere espero da, Alemanian Arcelor eta Thyssenkrupp Steel taldeetako altzairutegi handi batzuetan homologatzeko garatzen ari diren prozesuei esker.



## ULMA TALDEA

### Lagun Arok informazioarako sarbidea erraztu die bere bazkideei

Bere komunikazioa hobetzeko helburuarekin, LagunArok www.lagunaro.es webgune berritua jarri du mutualista guztien esku, informazioarako sarbidea errazteko, modu arin, intuitibo eta errazean.

Webguneak "**Arlo Pribatua**" dauka, eta bertan erabiltzaileek beren informazio pertsonala eskuratu ahal izango dute (Koadro Mediko etengabe eguneratua, ordainagiriak, afiliazio datuak, pentsioari buruzkoak, Arogestioneko posizio

## ULMA CONSTRUCTION


### ULMA Constructionek Youtuben eta Linkedinen presente egotea bultzatzen du



ULMA Constructionek YouTubeko kanal bat eta Linkedineko profil bat sortzearen alde egin du, bezeroekin komunikatzeko bitarteko arinak eta komenigarriak direlakoan. ULMAk bi helburu ditu kanal horiei dagokienez: markaren nabarmentasuna areagotzea, eraikuntzaren sektorean erreferentzia izatearen irudiari laguntzea, produktuaren katalogoaren ezagutza bultzatzea, bezeroekiko eta bezerogaiekiko interakzioa handitzea eta ikasleengana hurbiltzea. Finean, Internet bezalako bitarteko batean ikusgarritasun handiagoa izatea, funtsezkoa baita gaur egungo komunikazioan.

[www.youtube.com/user/constructionulma](http://www.youtube.com/user/constructionulma) youtubeko kanalean

enpresaren bideoak eta animazioak ikusi daitezke, bere produktuak eta aplikazioak, baita mundu zabalean egindako proiektuak ere. Gaur egun, fitxategiak ULMA Constructioneko filialetan dauden hizkuntza guztietan eskuratu daitezke, horien artean poloniera, errusiera, brasilerara, alemana, etab. **ULMA Constructionen Linkedineko** profil korporatiboak 1.900 jarraitzaile baino gehiago ditu une hauetan, eta astero eguneratzen da gaztelaniaz eta ingelesez, albiste, bideoetarako esteka, proiektu eta abarrekin, eta erabiltzailearentzako informazio interesgarriekin.



eguneratua...), baita informazio instituzionala ere (Memoriak, Kudeaketa Txostenak, Ikusapena...).

Bertsio mugikorra ere erabilgarri dago, aplikazioa Smartphone edo

iPhone batean deskargatuta, eta behin pasahitz pertsonala sartu eta gero aukera emango dio erabiltzaileari bere informazio pertsonala erraz eta berehala eskuratzeko.



## ULMA PIPING

### ULMA Piping Peruko petrolio findegi handienetako bat modernizatzeko lanetan parte hartzen ari da

Gaur egun ULMA Piping hainbat proiektutan ari da lanean, eta horietako bat Perun dagoen Talara petrolio findegia modernizatzeko obra da. Nazioartean ospe handia duen EPC (Engineering, Procurement & Construction) ingeniaritzak enpresarekin elkarlanean ari da proiektu horretan.

Proiektua bideragarri izateko, beharrezkoa izango da 3.500 milioi dolar inbertitzea, eta Estatuak inbertsio horren %72 diruz lagunduko du. Proiektu handinahia da, eta ingurumeneko eragina murrizten lagunduko du, plantaren ahalmena nabarmen handitzea ahalbidetuz gain. Izan ere, aurreikuspenen arabera, egunean 65.000 upel ekoiztetik –gaur egungo ekoizpena da– 95.000 kupel ekoiztera pasatuko da.

1965ean handitu zen azkeneko aldiz Talara findegia, zeina Petroperu enpresa estatalaren jabetzakoa baita, eta dituen ekipamenduak 50eko urteetan, Standard Oil Company enpresaren administrazioaren menpe zegoela, instalatutakoak dira. Talara findegia modernizazio lanek



128,9 hektareako azalera hartzen dute, barruan direla petrolio gordina tratatzeko ekipamendu eta instalazioen diseinua eta eraikuntza eta horiek inplementatzeko laguntza. Prozesu horietan, hain zuzen, esku hartuko du ULMA Pipingek, bridak neurria diseinatuta eta hornituta.

Gutxi gorabehera 55 hilabete barru Talara findegiak diesel erregaia eta kalitate handiagoko gasolina ekoizteari ekingo dio, Perun ingurumenari lotuta dauden eskakizun berriekin bat etorritik; izan ere, instalazio berriekin igorpena nabarmen murriztea bermatu ahal izango du eta, itsasoko ura gatzgabetuta, zonaldeko ur baliabideen babesa ziurtatuz.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### Exponor azoka Txilen

ULMA Conveyor Components Exponor meatzaritzako azokan izan da, Antofagasta hirian, maiatzaren 11tik 15era.

Txile herrialde estregikoa da ULMA Conveyor Componentsentzat, nazioartekotze prozesuari dagokionez. Kobreaken produkzioan munduko liderra izanik, %38ko kuotarekin, Txileko meatzaritza herrialdearen Barne Produktu Gordinaren %13 inguru da, eta esportazio totalen %59,7 kontzentratzen ditu.

Azokaren balantzea oso positiboa izan da, hartutako bisiten kalitateagatik zein lortu diren negozio aukerengatik.

2014an filial komertziala sortu eta gero,

aurten talde komertziala eratu da. Azokan talde komertzial osoa egon zen presente.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### ULMA Handling Systemsen webgune berria

ULMA Handling Systemsek webgune berria estreinatu du, komunikazioaren aro berrira egokituta, bisuala eta erraza, eguneratua, praktikoa eta eleanitza.

Gutxiago gehiago da printzipioari helduta, ULMA Handling Systemsen webgune berriak bere soluzio logistikoak erakusleho osatua eskaintzen dio erabiltzaileari, multimedia aurkezpenekin,

Webgune berriak, halaber, ULMA Handling Systemsek garatutako jarduera eta produktu berriak merkatuari ezagutarazteko aukera ematen du, adibidez, Ospitaleko Logistika soluzioetara zuzendutako jarduera berria, edo Robot IK PAL bezalako produkturik berritzaileenak, eskariak prestatzeko sistema berriak eta beste askoz gehiago.

Webgune berria kooperatibaren ezaugarri diren balio sozialez eta humanoz beteta dator, eta bere profesionalen taldea aurkezten du, DAIFUKU aliatu nagusia, eta enpresaren historian zehar garatu dituen kasu arrakastatsu esanguratsuen esperientziak.

Webgunearen bitartez, irudi berritua eskaintzeaz gain, ULMA erabiltzaile eta bezeroekiko interakzioarako horizonte berri bat eskaintzen du, presente dagoen sare sozialen bitartez.

[www.ulmahandling.com](http://www.ulmahandling.com)



## ULMA PACKAGING

### GRUMA elikadurako taldeak ULMAren biltzaile bat erosi du tortillak enbasatzeko

TORTILLEN ARLOAN MUNDUAN LIDERRA DEN KONPAINIAK BERRIRO ITXI DAITEKEEN ENBASE BATERAKO SOLUZIO BAT ESKURATU DU, ATMOSFERA ERALDATUAN (MAP) MEXIKAR TORTILLAK ENBASATZEKO

Artic side seal biltzailea flow pack makina bat da, elikagaiak atmosfera eraldatuan enbasatzen dituen, eta gainera berriro itxeko sistema bat dauka, produktua unitateka kontsumitu ahal izateko.

ULMAk berriro itxeko asmatu duen sistemak oso erraz identifikatzen den hegal bat dauka, enbasea erraz irekitzeko eta, kontsumitu beharreko aleak atera eta gero, berriro ere nahi beste alditan itxi ahal izateko, zerrenda itsasgarri baten bidez.

Makinaren modelo hau oso ondo egokitzen da beste produktu batzuetara, esaterako, haragi eta esneki produktu xerratuetara eta gazta blokeetara.

Alboko soldadurak itxura erakargarria ematen dio enbaseari, eta produktua erabat ikusi daiteke, eta inprimatu ere egin daiteke, bi aldeetatik, irudian ikusi daitekeenez.

Enbasatzearen kostu txikiari esker, makina hau irtenbide ezin hobea da tortillak enbasatzeko prozesua automatizatzeko.



## ULMA TALDEA

### ULMA Taldeko webgune berriaren bisita kopurua %31 hazi da

Hainbat hilabete igaro dira ULMA Taldeak editatutako euskarri berriek argia ikusi zutenetik, "ULMA Gara" lemapean: mezu bakarra, bitarteko inprimatu, ikus-entzunezko eta digitaletako bakoitzak eskaintzen dituen hizkuntzarekin eta tresnekin indartuta eta jantzita.

Irudi korporatibo berriaren gaineko balorazioa oso positiboa izan da, hein handi batean, ULMA Taldeko bazkide eta langileen lekukotza, inplikazio eta protagonismoaren isla leiala eta emaitza delako. Lehen pertsonako ahots hori modu fresko eta zuzenean iritsi da publiko desberdinetara, horien artean egonik langileak, laguntzaileak, hornitzaileak eta bezeroak. Balorazio eta pertzepzio baikorrak, [www.ulma.com](http://www.ulma.com) webgune korporatibo berria estreinatu denetik datu oso-oso positiboek berresten dituztenak. Bisitak %31 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta, erabiltzaile kopurua %21,62 handiagoa da, saio bakoitzeko orrialdeak

%63,08 gehitu dira, eta eduki berriak irakurri eta ikusteko batez besteko denbora ere %130 handitu da; hori da proiektu digital berriari egin zaion harrera onak erakusten duen egoera.

Webgune korporatiboak, halaber, **Negozio bakoitzaren presentzia digitala eta ULMA Taldearen promozio berriak** indartzeko helburua ere betetzen du, erabiltzaileari hainbat sarbide eskaintzen baitizkio webgune bakoitzerako, produktuen eta zerbitzuen gaineko informazio zehatzagoa aurkitu ahal izateko.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Bideo berria Zure Fatxada ULMA Sistemarekin Zaharberitzearen Onurei buruz

Erabiltzailearentzat kalitatezko eduki interesgarriak sortzeko politikarekin jarraituz, ULMA Architectural Solutionsek bideo bat argitaratu berri du eraikin bat zaharberitzeko orduan fatxada aireztatua instalatzearen onurei buruz.

Bideoaren helburua da erabiltzaileen artean polimero hormigoia eta ULMA fatxada aireztatuko sistemaren ezaugarri egokiak hedatzea eta partekatzea, ezin hobeto egokitzen baitira eraikin bakoitzaren beharretara. Bideoak, gainera, fatxada aireztatuta baten ezaugarriak azpimarratzen ditu, eta errehabilitazio bat egitean kontuan hartu beharreko oso xehetasun interesgarriak erakusten ditu; halaber, erabiltzaileei erosotasunik eta aurrezpenik handienak emateko eskaintzen dituen abantailak

ere aurkezten ditu.

Oso bideo argi eta erraza da, beren eraikina zaharberitzeko alternatiba bila dabiltzan bizilagun komunitateei zuzenduta dagoena.

ULMAren webgunean bistaratu daiteke, bideoen atalean, (<http://www.ulmaarchitectural.com/eu/bideoak/>) eta ULMA Architecturalen **You Tube kanalean**.





“*Negozio gehienek, bakoitzak bere egoerarekin, azken urteotan sentitu ahal izan dute gurea bezalako talde batean egoteak ematen duen babesa.*”



**“Nire iritziz, oraintxe bertan gure erronka nagusia taldearen proiektua indartzea da, enpresaren arloan zein arlo sozialean.”** RAUL GARCIA, ULMA Taldeko lehendakaria

“**Karguan urte bat baino gehiago dagoeneko, zer balantze orokor egingo zenuke?**”

Egiazki, kargu berezia da, Kooperatiba bateko lehendakaria ez bezalako. Negozio guztien martxari buruzko informazioa daukazu, baina ez dituzu zure jatorriko negozioa bezain sakon ezagutzen. Taldeko lehendakariak

betetzen duen eginkizuna negozioren eguneroko jardueratik urrutiago dago, eta gehiago begiratzen die Taldetik kanpoko ordezkariak instituzionaleko zereginei eta talde mailako barruko koordinazio lanei. Nolabait, talde kooperatiboaren barruan kargu politikoa betetzearen antzekoa litzateke. Egiten dudana balorazio orokorra ona bada ere, postuan finkatzen noan heinean, ikusten ari naiz leku honetatik

ere lan esparru zabala dagoela Taldea hobetzen laguntzeko eta, horrela, gure kooperatibak hobetzeko.

“**Azken urteetan bultzada handia eman zaie POGUn markatutako Taldearen Politika Orokorrei. Uste duzu hori gure kooperatiben artean kohesio handiagoa izatea ahalbidetzen ari dela? Nola ikusten**

**duzu aurrerapen hori?**

Azken urteotan politika orokorrei eman zaien bultzada nozitzen ari garen krisiarekin nahastu da. Negozio gehienek, bakoitzak bere egoerarekin, azken urteotan sentitu ahal izan dute gurea bezalako talde batean egoteak ematen duen babesa. Babes hori, funtsean Taldeko kooperatiben arteko elkartasunaren isla dena, Departamentu Zentraletatik koordinatuta, argia eta baldintzarik gabekoa izan da arlo askotan, baina, bat nabarmenezkotan, birkokapenen arloa eta arlo finantzarioa nabarmenduko nituzke. Bi kasu horietan oso maila altuko elkarlana egin dugu.

“**ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko Lehendakariatzatik, eta karguan dagoeneko urtebeteko ikuspegiarekin, zure iritziz, zein dira talde gisa aurre egin beharreko erronka nagusiak?**

Nire iritziz, oraintxe bertan gure erronka nagusia taldearen proiektua indartzea da, enpresaren arloan zein arlo sozialean. ULMA oro har zenbat eta sendoagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da proiektu globalaren bideragarritasuna epe luzera eta, ondorioz, gure ongizatean eta ingurunearen ongizatean eragin handiagoa izango da. Bide horretan aurrera egiteko, beharrezkoa da gure funtzionamendu arauak indartzea, eta gaur egun gauden punturaino ekarri gaituen espiritua erakunde osora hedatzea. Espiritu horren muinean dago elkartuta banan-banan hartuta baino indartsuago

garelako ideia, eta kooperatiben eta bertako bazkideen arteko elkartasuna, bai krisi garaietan bai etorkizuneko proiektuak bultzatzeko orduan.

“**ULMA Fundazioa, azken urteotan, kohesio sozialerako tresna agertu da, eta ingurunean ospea du, baina, ULMA Taldeko lehendakariaren ustez, aurrean nolako bidea du ULMA Fundazioaren Proiektuak?**

Uste dut gure Fundazioa oso tresna interesgarria dela, orain arte bere ahalmen guztiekin aprobetxatzen jakin ez duguna. Fundazio bat edukitzeak aukera ematen digu bere bitartez IPDK fondo gehienak bideratu eta kudeatzeko, eta horri esker geuk erabakitzen dugun moduan erabili ditzakegu fondo horiek (legez ezarritako muga barruan), eta arlo sozio-kulturean taldeko proiektu sakonagoak bultzatu.

Fundazioa gure esentzia kooperatiboaren berezko alderdi soziala Talde osoan lantzeko bidea izan liteke, bai gure kolektiboari berari begira bai gure inguruneari begira. Eta ez naiz soilik itzuli beharrik gabeko egin ohi ditugun ekarpen ekonomikoez ari, hau da, gure kooperatibak eta bazkideak gizarte erantzukizuneko eta eraldaketako proiektuetan zuzenean inplikatu behar ditugu. Gure asmoa da urte honetan zehar ULMA Fundazioarentzako ikuspegi berri bat ezartzea.

“**Azkenik, mezuren bat ULMA Talde kolektiboarentzat, krisiaren unerik gogorrena igarota dagoela ematen duen une hauetan?**

Hainbat mezu zabaltzeko aprobetxatu nezake, baina bada gai bat kooperatiba guztiei edo gehienei eragiten diena, eta uste dut kontuan hartu behar dugula. Nire iritziz, gure burua zamatzan eta

Elkartuta bana-banan  
baino indartsuagoak  
gara



# ULMA Architectural Solutionsek 25 urte bete ditu

**Aurten urteurren berezi bat ospatuko da eraikuntzaren sektorearentzat: ULMA Architectural Solutionsek 25 urte betetzen ditu bere jardueran, bete-betean lanean, eta nazioarteko proiektio gero eta handiagoarekin.**

## TAILERRETIK INDUSTRIARA

Enpresa **ULMA Taldearen** baitan sortu zen, **ULMA CyEren** promozio berri moduan, 80ko urte gogorren ondoren lana sortzeko helburu argiarekin.

Hasieran material berritzaile eta aukera asko eman zituen baten alde egin zen: "polimero hormigoia". Kalitate handiko materiala da, poliester erretxina egonkorren bidez loturiko silize eta kuartzoko agregakinen konbinazio bikain batez osatua. Bere erresistentzia mekaniko bikaina nabarmentzen da (konpresioarekiko erresistentzia hormigoi tradizionalan baino lau aldiz handiagoa da), eta elementu arinak eta neurri txikikoak ekoiztea ahalbidetzen du. Fundatzaileen lan gogorrari esker, eta artean zuzendari nagusi zen Iñigo Aguirreren babesa tarteko, kooperatiba gazte honek bere bideari ekin zion.

1990. urtean lehendabiziko piezak fabrikatu ziren **leiho isurki eta gailurretarako**. Urte batzuen buruan lehen inbertsio teknologikoak egin ziren, eta eraikuntzako soluzio berriak garatzen hasi ziren, negozioaren ikuspegia beste merkatu nitxo batzuetara zabaltzeko. Horrenbestez, **drainatzeko kanalak** eta **fatxada aireztatuaren sistema** berritzailea sortu ziren. Hainbat urtez hazi zelarrik, tailer txikia izatetik 2001ean 12.000 m<sup>2</sup>-ko fabrikazio planta bat duen industria izatera igaro zen.

## NAZIOARTEKOTZEA

2009. urtean, hainbat urtetako esperientziari esker lortutako pertsona talde kualifikatuarekin, teknologiarekin eta know-howarekin, ikuspegi estrategiko berria landu eta nazioartekotzeko politika ezarri zuen, mundu gero eta globalizatuago batera zabaltzeko.

Gaur egun, ULMA Architectural Solutions, bizkarrean mende laurdena duelarrik, sektorearen erreferentzia da Espainian, eta filialak ditu Portugal, Frantzia, Brasil, Mexiko eta Italian, eta banatzaileen bitartez mundu zabaleko 20 herrialde baino gehiagotan du presentzia.

## 25. urteurrena ospatzeko ekimenen artean daude:



## OROITZAPEN BIDEOA

Bideo bat argitaratu da, kooperatibaren historia modu hurbil eta humanoan kontatu nahi duena, mugarririk garrantzitsuenak azpimarratuta. Bideoan barruko pertsona askok lagundu dute, eta hori zen hain zuzen bere helburuetako bat, "pertsonek inplikazioa". Bazkideek aktore, esatari eta gidolari moduan parte hartu dute.

Halaber, urtean zehar Lantegiko fatxada berritzeari ekingo zaio, Fatxada Aireztatuen sistemarekin.



## GERNIKAKO ARBOLAREN ALDAXKA

Gauzatu diren ekimenetako beste bat Gernikako Arbolaren aldaxka ofizial bat landatzea izan da, Bizkaiko Batzar Nagusiek emandakoa, indartsu hazteko helburu sinbolikoarekin, kooperatibaren etorkizuna bezala.



>> Taldearen argazkia 25. urteurrena ospatzeko bazkariaren ondoren.

## Testigantzak



**Francisco Benito**  
Fabrikazioko arduraduna

Tailer txikia zelarrik iritsi nintzen enpresara, eta laguntasun handia zegoen eta lan asko egiten zen. Denok egiten genuen pixka bat denetik, beharrezkoa zenean, juxtu planta berrira aldatu baino lehen. Jauzia oso handia izan da, tailerra izatetik nazioartekotzen ari den Enpresa izatera igaro gara. Eta hori krisia jasaten laguntzen ari zaigu. Nire ustez, urteak igaro ahala, laguntasuna eta enpresa gure delako sentimendua galdu da. Baina uste dut hori bizi garen gizartearen eragina dela, kooperatibetan ere islatzen dela. Noztzen ari garen egoera ekonomiko honetan, uste dut orduko esfortzu eta sakrifizio espiritu hartara itzuli garela pixka bat. Kolektiboa ahalegin handiak egiten ari da egoera aldatzen saiatzeko. Lan moduak eta baldintzak goitik behera aldatu dira urte haiekin alderatuta. Inbertsio handiak egin dira. Baina orain faltan botatzen dudana da orduan pertsonetik zegoen errespetua, maila guztietan.

Urte hauetaz egiten dudana balorazio oso positiboa da, enpresa nola hazi den ikustea harro egoteko motiboa baita. Etorkizuna baikor ikusten dut, eta uste dut igarotzen ari garen uneak enpresa indartsuago bihurtuko gaituela. Prestatuago egoteko balio behar digu. Baina uste dut oso beharrezkoa eta garrantzitsua dela ULMA Architectural Solutions osatzen dugunon eta osatuko dutenen "ilusioa eta inplikazioa".



**Nicandro Falco**  
Product Manager

Kooperatiba honetako bazkiderik beteranoenetakoa ez banaiz ere, hasierako ULMA Hormigon Polimerotik gaur egungo ULMA Architectural Solutionsera arte nolako bilakaera izan duen egiaztatu dezaket.

Nostalgiak gogoratzen ditudan laurogeita hamarrek azken urteetako garai hartatik, Otadui pasealekuko 3ko instalazio txiki haieratik, Zubillagako fabrika handira. Hitz gutxitan, tailerra izatetik industria handia izatera eduki duen bilakaeraren lekuko izan naiz.

Benetako poza ematen du ikusteak enpresaren neurria nola hazi den, bazkide kopurua, ordezkaritza, merkatu berriak, eta, proiektua sendotzeaz gain, nazioartean gero eta gehiago zabaltzen ari dela ikusteak, potentzial itzelarekin.

Baino hori guztia enpresa hau osatzen dugun guziren ahalegin, sakrifizio eta konpromisoarekin baino ez da lortu. Inork ez digu ezer oparitu. Denbora honetan guztian jende asko igaro da hemendik, baina egiazki konpromisoa eta proiektuaren jabe izatearen sentimendua erakutsi dutenek, horiek sentitu dezakete familia handi honetako kide izatearen harrotasuna.



**Amaia Ramos**  
Egingarriaren teknikaria

Ni ULMAn hasi nintzenean bazituen urte batzuk dagoeneko: oso enpresa txikia zen, eta Eraikuntzako banantze prozesuarekin zebilen oraindik. Beste kudeaketa sistema batekin hasi ginen lanean, eta geure prozedurak eta prozesuak ezartzen; oso aldaketa handia izan zen.

Fisikoki, hainbat urtetan egoera xelebrea ibili ginen. Oso leku txikian geunden, eta hazten hasita geunden, oso ohikoa zen laneko mahai berean bi edo are hiru langile egotea lanean. Denok denaz enteratzen ginen.

Baina aldaketa handia planta berria eraiki zenean etorri zen. Proiektuak ahalegin handia eskatu zuen denon aldetik baina, aldi berean, indarra eman zigun, eta nortasun bat.

Nire ustez, gure enpresak duen gauzarik onena bere jende talde handia da, langilea, proiektua aurrera ateratzeko gogo handiarekin.

Une hauetan uste dut aldaketa beharrezkoaren fasean gaudela, zer gertatuko den zain, gerentea berriki aldatu baita.

Etorkizunari dagokionez, uste dut merkatua hobetzen ari dela eta ongi posizionatzen ari garela: Prozesu guztiak ondo ixteko gai izan beharko genuke, aukera honi egiazki errentagarritasuna ateratu ahal izateko.






# ULMA gara, Batzarraren ikuspegi berri baterako ahotsa eta irudia

ULMA CyEk joan den maiatzaren 22an egin zuen Batzar Nagusia besteak ez bezalako izan zen. Horixe zen nahia hain zuzen ere, bestelako ikuspegi bat ematea eta espazio eroso eta hurbileko bat sortzea, urteko ekitaldian zeuden bazkide guztiak parte hartzea bultzatzeko.

Batzarra egin baino egun batzuk lehenago, ULMA CyEko bazkideek ondoren protagonizatuko zuten aldaketa igarri ahal izan zuten, gai zerrenda eta talde dinamika batean parte hartzeko gonbidapena jaso baitzuten.



>> Talde dinamikako jarraibideak

Batzarra egin behar zen kiroldegian sartzean, bazkide bakoitzak txartel bat jaso zuen, zeinean ingurune kooperatiboari buruz eztabaidatzeko zein lantalde egokitu zitzaion adierazten zen; horretarako metodoa "thinking visual" zen, hainbat kontzepturi buruzko eztabaida errazten

duena, taldeko komunikazioaren eta esanahien eraikuntzaren bitartez. **Kooperatiba, ilusioa, taldea, harrotasuna... horiek izan dira eratu ziren taldeetan jasotako ondorio, ideia eta sentimenduen multzoan marraztu ziren kontzeptuetako batzuk.**

Espazioaren banaketak ere laguntzen zuen jardunaldiaren garapenean hurbiltasun, konfiantza eta partaidetza sentimendua lortzen, lehendakartzaren ohiko mahaiaren ordeztar baitzen, une bakoitzean aurkezpena egin behar zuen pertsonak okupatzen zuena, haren eta publikoaren arteko distantziak murriztuz; publikoa eszenatokiaren inguruan jarritako aukietan eseri zen, eta harmailetan zeuden aukien kopurua murriztu zen, horrela bazkidea ikusle huts moduan kokatzeko alderdi guztiak desagerrarazten saiatuta.

Horrenbestez, ULMA CyEk Batzar Nagusiari garrantzia eman nahi izan dio, borondate sozietarioaren adierazpen goren ordezkatzen duen



>> Talde argazkia ULMA CyE, S.Coop.eko Ohiko Batzarrean egindako talde dinamikaren ondoren

organoa den heinean. Egunean zehar xehetasun guztiak zainduz, eta merezi duen garrantzia emanez Batzar aurreko lanari zein ondorengo garapeneri, parte hartzeko dinamikatik eratorri diren ondorioak interpretatu eta gero, esentzia kooperatibo biziberritzeko beste urrats bat egin nahi izan da.

"ULMA gara", Taldearen euskarri korporatibo guztietan presente dagoen

lehen pertsona ahotsa parte hartze, berrikuntza eta sormen ekintzen bitartez gauzatzen eta hartzen du esanahia, ULMA CyEk egin duen bezala, ezagutza bultzatzen eta ahots guztiak anplifikatzen dituen espazio bati balio berria emanez.

*Kooperatiba, ilusioa, taldea, harrotasuna... horiek izan dira marraztu ziren kontzeptuetako batzuk.*



>> Talde dinamikaren jasotako ondorioak eta kontzeptuak jasotzen dituen murala



# ULMA eta 2016ko Europako Hiriburutza;

## IDEIA LEHIAKETA



Datorren urtean Donostia 2016ko Europako hiriburutzaren egoitza izango da. Arrazoi hori tarteko, ULMA Taldea ekitaldiaren Laguntzaile Globala izanik, ULMA FUNDAZIOAn Ideia Lehiaketa bat sustatuko da bere bazkide eta langileentzat.

Proposamenek ekintza, jarduera edo ekimen bat deskribatu beharko dute, ULMAren irudia eta bere balioak sustatzeko eta parte hartzea bultzatzeko. Erronka ULMA lan egiten duten pertsonen artean ekintza edo jarduera bat zehazteko ideiak sortzea izango da.

Proposamenak izaera sozial edo kulturalerako ekimen eta ekintzen ingurukoak izan daitezke. Helburua ULMAko pertsonen partaidetza sustatuko duten ideiak proposatzea da, kultura testuinguru industrialera hurbiltzea, sormena bultzatzea eta berrikuntza aktibatzea.

Irabazten duen proposamena 2016ko Europako Kultura Hiriburutzan sartuko diren kultur jardueren programa zabalaren barruan sartu ahal izango da, ULMAri ideiak aurkezteko aukera eskaini baita; hiriburutzak berak ideia horiek egoki eta interesgarritzat joz gero, datorren 2016. urtean gauzatu ahal izango dira, programa ofizialaren barruan.

### | Parte hartzea, Epeak, Sariak eta Baldintzak.

ULMA Taldean lan egiten duten pertsonak edo pertsona taldeek parte hartu ahal izango dute, kokapen geografikoa edozein dela ere. Behar beste dokumentatutako proposamen edo ekimen sozio-kultural bat bidali besterik ez da egin behar. **Eduki berritzaile eta parte hartzaile handieneko osagaiak dituzten ekimenak lehenetsiko dira.**

Ideiak aurkezteko epea irailaren 24an amaituko da, eta proposamenak uztailaren 6tik aurrera bidali daitezke.

Bidalketak mezu elektronikoz egin daitezke, [donostia2016@ulma.com](mailto:donostia2016@ulma.com) helbidera, edo posta arruntez, ULMAko Taldeko Departamentu Zentralak, Garagaltza auzoa 51, Oñati, DONOSTIA2016 erreferentziarekin. ULMA Taldeko Departamentu Zentraletako harreraren zuzenean ere entregatu ahal izango dira, Garagaltza auzoko 51n.

Balorazioa egiteko prozesua proposamenak onartzeko epea amaitu eta berehala hasiko da. Hautatutako proposamenak ULMA Taldeko Kontseilu

Orokorrean bidaliko dira, eta bera arduratuko da, azken instantzian, proiektu irabazleak zehazteaz. Eskatutako gutxieneko kalitate baldintzak betetzen ez dituen proposamenek egonez gero, lehiaketa hutsik deklaratu ahal izango da.

Sariak izango dira 1.500 euro irabazten duen proiektuarentzat eta 500 euro bigarren postuan geratzen denarentzat. Sari banaketa 2015eko urriaren 28an egingo da, ULMA Taldearen Auditoriumean.

Positibo baloratuko da proposamenak ULMA Taldearen Balioekin bat etortzea, eta Debagoiena eskualdean gauzatu ahal izatea. Baloratuko diren alderdien artean daude originaltasuna, sormena, iraunkortasuna eta teknologia berriak erabiliz gauzatu ahal izatea.

2016ko Europako Donostia Hiriburutzak uste badu proposamen irabazlea bideragarria eta interesgarria dela, bertako jardueren programan sartuko da. Proposamena ez bada interesgarritzat jotzen, ULMA Fundazioak berak baloratuko du gauzatu ahal izateko aukera.



*Eduki berritzaile eta parte hartzaile handieneko osagaiak dituzten ekimenak lehenetsiko dira.*

**Interesatzen zaizu?**  
Egin bakarrik edo taldean eta **irabazi 1.500 €**

**ULMA Fundazioak parte hartzera animatzen zaitu**

Bidali proposamena, ongi dokumentatuta, [donostia2016@ulma.com](mailto:donostia2016@ulma.com) helbide elektronikora, gure ingurunean garatu daitekeen ekimen sozial edo kultural bati buruz, eta **1.500 euro irabazi ahal izango dituzu.**

**Bidaltzeko azken eguna: irailaren 24a**

Proposamenean zein Negoziotan lan egiten duzun eta izen-abizenak adierazi behar dira, DONOSTIA2016 erreferentziarekin. Taldean egiten bada, adierazi kide guztien izen-abizenak eta zein Negoziotan lan egiten duten.



# ULMA, protagonista handia HISPAC-BTA azokan

HISPAC-BTA azokaren 2015eko edizioak (Bartzelona-apirila) ULMA markaren presentzia handia izan du, Taldeko lau negoziok parte hartu baitute elikagai eta edarien industriara zuzendutako nazioarteko hitzordu handi horretan, sektore hori izanik ontziratze eta enbalatzeko makineria zein material gehien kontsumitzen duena.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek Altzairu Herdoilgaitzeko Drainatze Soluzioak aurkeztu zituen BTA Elikaduraren Teknologien Azokan. Aurkeztutako gama berriaren nobedade handietako bat HygienicPro modeloa da. Drainatzearen esparruan Blücherrek garatu eta ULMAk banatzen duen kontzeptu berritzailea eta eskusiboa da, diseinuaren eta fabrikazioaren arloan sektorean duen 50 urte baino gehiagoko esperientzian oinarritua.

ULMA Architectural Solutions, altzairu herdoilgaitzaren katalogo berrian aurkeztzen dituen soluzio horiei guztiei esker, eraikuntzaren sektoreko lehen lerroan kokatzen da, soluzio pertsonalizatuak eta iraunkorrek garatzeari dagokionez, eta gainera kalitatearen sinbolo eta bermearen zigu bihurtu da eraikuntzaren arloan.



## ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek, berriaz, bere garapenik berritzaileenak aurkeztu zituen etxeko gaien merkatuan erreferentziazko den HISPAC azokan.

Termozigilatzearen arloan, TSA eraginkortasun handiko termozigilagailuen gama berriko bi modelo. TSA 680 modeloa, hutseko skin aplikazioetarako, erretiluaren altuera gainditzen duten produktu freskoetarako (protruding), eta TSA 875 modeloa, elementu guztiak fabrikazio propioak dituen lerro batean integratuta.

Flow Packaren arloan, hiru modelo desberdin hiru enbase motetarako. Bat ARTIC da, alboko soldadurarekin, produktu xerratuetaarako, berriro itxi daitekeen enbase oso praktikoa. FV 35 biltzeko makina, FLOW-VAC® familiakoa, hutseko poltsa bilkorrek sortzeko garatua, zeinak

enbasatu beharreko produktuaren luzerara egokitzen diren. Azkenik, abiadura handiko FR 500 flow pack biltzeko makina, pastelgintza-opilgintza industrialeko eta txokolate produktuak enbasatzeko, elikatze sistema automatiko bat duena, minutuko 800 paketeraino lortzeko kadentzia altua bermatzeko.

Termozigilatze soluzioen artean, TFS 407 DARFRESH® dago, CRYOVAC® filmarekin, hutseko skin enbaseetarako, eta eraginkortasun handiko TFS 700 termoformatzailea, xerratutako produktuetara zuzenduta, diseinu higienizagarriarekin eta minutuko 90 enbase egitea bermatzeko autonomia handiarekin.

Biltzeko makina bertikalen lerroari dagokionez, VTC 740 aurkeztu zen, diseinu berrituarekin, guztiz higienizagarria eta eraginkortasun gorenekoa. Enbasatzeko makina bertikalak sistema berritzaileak ditu, erreferentzia eta formatua aldatzeko denborak murrizten dituztenak.

Azkenik, kartoian kokatzeko multiformatu sistema berritzailea, formatua aldatzeko sistema automatikoarekin. Instalazio horrek formatu ugarietarako malgutasun handia eskaintzen du, eta kaxak egiteko gailu bat du, eta U10 robot bidez kokatzen ditu eta ixteko makina dauka.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsi dagokionez, sistema logistiko automatizatuak erakutsi ziren, industria eta kontsumoko hainbat sektoretako ekoizle, fabrikatzaile eta banatzaileei zuzenduta.

Zalantzarik gabe, stand honetako gai erakargarrienak biltegitratze automatikoko sistema herdoilgaitza eta paletizazio automatikoko sistema izan ziren.

ULMAren biltegitratze automatikoko sistema herdoilgaitzak ezaugarri bereziak ditu, elikaduraren sektorerako egokituak, eta horri esker prozesuaren kalitatea hobetzen da eta bezeroen estruktura logistikoetara moldatzeko malgutasuna lortzen da. Sistemak, segurtasuna hobeto kontrolatzeko produktuen trazabilitatea eta kalitatea ezin hobeto segurtatzeaz

gain, aukera ematen du elikagaiak prozesatzeko denborak murrizteko, eta, aldi berean, azken helmuga esleitzeko denbora atzeratzea ere ahalbidetzen du.

Halaber, ULMA Handling Systemsek paletizazio automatikoko aurkeztu zuen sistema Lerro Amaierako sistemetan Ingeniaritza honek eskaintzen dituen funtzionalitateen erakuslea da. ULMA Handling Systemsek robotikaren arloko partnerrik onenak ditu eta ongi ezagutzen ditu materialen fluxua automatizatzeko sistemak; horrenbestez, Hornidura Katean eta Hotzeko Katean hobekuntza proiektuak garatzen ditu.



## ULMA INOXTRUCK

ULMA Inoxtruckek bigarrenaz parte hartu zuen HISPAC-BTA azokan, eta kargak manipulatzeko altzairu herdoilgaitzeko ekipamendu higienizagarrien gama osoa aurkeztu zuen, elikaduraren munduari zuzenduta, higienizagarritasun, ergonomia eta mantentze lan gutxiko parametroetan oinarrituta; gainera, eguneroko garbitasuna errazten du, prestazioak eta iraungarritasuna murriztu gabe.

Kargak horizontalean mugitzeko soluzioak aurkeztu ziren (transpaletak, eskukoak eta elektronikoak), kargak jasotzeko eta manipulatzeko soluzioak (pilatzaile elektrikoak eta elektro-eskukoak), packagingeko ekipamenduetan bobinak edo moldeak aldatzeko ekipamendu osagarrien gama osoa, eta iraulgailuen ekipamenduen gama, (DIN 9797 cutter orgak iraultzeko). Erakutsi zen makina transpalet elektriko bat nabarmendu daiteke, presiozko ura ezarrita mugimenduak simulatzen zituen ontzi baten barruan, bisitarien artean ikusmin handia eragin zuena.



## ULMA Taldeko beste talentuak

**Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun oso zorrotzak, eta erakusten dute talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla.**

Ez iratzargailuaren petralkeriak, ez geografiako urruneko puntuetara joan beharrak ez dituzte kikiltzen. ULMA Taldeko langileen familiako parte dira, eta ezin hobeto uztartzen dituzte lanbidearen betebeharrak betetzeko ardura eta eliteko kirol edo musika bezalako jarduerak. Beren zaletasunak entretenimendutik askoz harantzago doaz.



*Lehiak zoratu egiten nau, energia deskargatzea behar dut eta lagunekin egon.*

**Nerea Arregui,**

Ingeniari logistikoa ULMA Handling Systemsen

Nerea Arregui bere lanpostuan eta Aiala Zarautz eskubaloia taldeko partida bateko >> une batean.



### | Lehiaren lilura

Nerea Arregui makalarazten duen gauza bakarra egonean egotea da. Orain dela 26 urte jaio zen Zarautzen, Elgoibarren bizi da eta Oñatin lan egiten du, baina batetik bestera ibiltzea erabateko harmonian daraman errutina bat da. ULMA Handling Systemseko ingeniari logistikoa da eta, zalantzarik gabe, biltegia automatizatzeko behar planifikazio zorrotzak lagundu egingo dio bere denbora ondo kudeatzen, izan ere, laneko konpromisoak betetzeaz gain, beharrezko ahalegin guztiak eskatzen dion pasio handi bat dauka: eskubaloia. Nerea Aiala Zarautzeko jokalaria da; taldea emakumeen eskubaloiko lehen mailara igo berri da, 32 urtez beheko kategorietan aritu eta gero, eta beste arrazoi batzuen artean dago Nereak 65 gol sartu izana, ingeniari hau bere konbinatuko hirugarren golegile bihurtu dutenak. Asteburuetan lehiatzen da, ia egunero entrenatzen

du, eta zaila du etxera gaueko hamaikak baino lehen iristea.

*“Lehiak zoratu egiten nau. Irabaztea asko gustatzen zait. Energia deskargatzea behar dut eta lagunekin egon. Niretzat erlaxagarria da, eta emaitzak alde daudela ikusten duzunean errazagoa da”,* dio. Nerearentzat eskubaloia dibertsioa da. Umetan hasi zen kirol honetan, federatzen hasita zeuden eskolako lagunak bultzatuta, eta harrezkero uztartu egin ditu lehia eta eguneroko errutinako zereginak. Kirolean oso ongi dabilen arren, bere burutik ez da pasatzen eskubaloian eskusiboki egitea.

*“Nire buruan ez dago lanbide bihurtzea. Guk ez dugu ezer kobratzen. Oso gutxi bizi dira eskubaloitik. Emakumeen kirola, oro har, ez dago ondo baloratuta”,*

gehitu du. Nerea Arreguiaren lehentasuna ULMA Handling Systemsen duen lana da, baina ilusio handiz helduko dio datorren denboraldiari, ez jaisteko esperantzarekin, eta taldearen historian beste atal arrakastatsu bat idazteko nahiarekin. *“Asko sufritu behar dugu, baina baita disfrutatu eta ikasi ere. Jokalari guztiak zarautzarrak gara, denak harrobikoak. Gure helburua da beste urte batez kategoria gorenean mantentzea”,* dio.

### | Akorde artean

Jokalekuetatik urrun, baina intentsitate eta dedikazio berdinarekin, ULMA Construcioneko langilea den Angel Lumbrerases berarentzako tarte bat bilatzen du, gitarrari akorde batzuk lapurtu ahal izateko. Oso gazte zelarik, eskakizun fisiko handia duten jardueretan aritzeko aukerak lausotu zizkion lesio bat izan zuen, eta ordutik aurrera bere talentu osoa musikaren zerbitzura jarri zuen, eta harrezkero musika da bere pasiorik handienetakoa.

Orain dela 20 urte Lagash rock metal taldea sortu zuen, eta harekin hainbat disko argitaratu eta 2007ra arte modu egonkorrean jardun zuen. *“Taldea eta musika izan dira nire bizitza. Baina erantzukizun handia da eta dedikazio handia eskatzen du”,* azaldu du.

Bost urteko geldialdi baten ondoren, 2012an taldekideak berriro elkartu ziren, beren abestirik enblematikoenen bertsioen bilduma bat ateratzeko. Aitzitik, Angelen etorkizun musikala bakarrik ere idazten da, eta artistak denbora bilatzen du konposizioetan murgil egiteko eta bere uza pertsonaleko bigarren diskoa ateratzeko. *“Denbora dudanean, garrantzitsuena disko bat ateratzea izango da. Jendeari gustatzen bazaio, askoz hobeto, baina inportanteena norberaren gogobetetzea da”,* gehitu du.

Lumbreras aita izan da bigarren aldiz denbora tarte oso laburrean, eta gero eta zailago gertatzen zaio bakardade une bat aurkitzea konposatzeko, baina, oso okupatuta egonik ere, musika beti da berarekin. Berak soil eta irmo deskribatzen du: *“Barruan metala daramat”.*



>> Angel Lumbreras bere gitarrarekin eta Lagash Rock Metal taldearekin aterako diskoen portadekin



*Taldea eta musika nire bizitza izan dira, baina erantzukizun handia da eta dedikazio handia eskatzen du.*

**Ángel Lumbreras,**

ULMA Construcioneko fabrikazioko langilea





# ESKULAN LEHIAKETA

Bazkide eta langileen seme-alabentzako lehiaketa

ULMAk baliabideak birziklatzearen eta berrerabiltzearen alde egiten du. Arrazoi hori tarteko, ULMA Taldeak aurten eskulan lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du bazkide eta langileen seme-alabentzat.

Helburu nagusia da haurrek kontzientzia hartzea egunero erabiltzen ditugun eta normalean erabili eta gero botatzen ditugun objektuei bigarren bizitza bat eman dakiekeela: edalontziak, botilak, pintzak, tapoiak, etab.

OINARRIAK:

**PARTE HARTZAILTEAK:** ULMAko bazkide eta langileen seme-alaba guztiak parte hartu ahal izango dute. Parte hartzaileak bi mailatan banatuko dira 6 urte arteko haurrak, eta 7tik 11ra bitartekoak.

**ALRKEZPENA:** Lanak ULMAko Departamentu Zentraletara bidali behar dira: Garagaltza auzoa 51, 20560 OÑATI (Gipuzkoa). (Ordezkaritzetan erabili barneko posta edo, bestela, posta arrunta.)

**DATA:** Lanak irailaren 23aren aurretik entregatu behar dira.

**SARI BANAKETA:** Urriak 15, osteguna, 18:00etan.

**LANEN ERAKUSKETA:** Jasotako lan guztiak sariak banatzeko ekitaldian erakutsiko dira, eta ondoren sortzaileei itzuliko zaizkie. Sariak banatu aurretik, lanen argazkiak egingo dira eta <http://portalde.ulma.com> eta [www.begira.ulma.com](http://www.begira.ulma.com) guneeetan erakutsiko dira.

**SARIAK:** Txirringa bat kategoria bakoitzean.



\*Parte hartzaile guztiak oparitxo bat jasoko dute parte hartzeagatik.

ARGAZKIA: Aurreko edizioan aurkeztutako eskulanetako batzuk

## gure erakusketak



### Oñati oroitzapenean argazki erakusketak

**Data:** Ekainaren 24tik irailaren 14ra  
**Bisita ordutegia astelehenetik ostiralera:** 8:30-12:30 eta 14:00-17:30  
**Lekua:** ULMA Taldeko Departamentu Zentraletako sarrera, Garagaltza 51.



ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;

Beti bezala, Iradokizunetarako Postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamentu Zentralak.  
 Garagaltza Auzoa 51 - 22 p.k.  
 20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
 Erref. Begira. Emaila: [begira@ulma.com](mailto:begira@ulma.com)

## ERRETIROAK: 2015eko apirilak 1 - abuztuak 31

José Zurutuza Gallastegui



Francisco Rodríguez Blázquez



Juan Cruz Axpe Lejarcegui



Joxe Arregi Aranburu



Felix Bengoa Unzurrunzaga



Salvador Urcelay Azkargorta



Juan Gregorio Díaz Rodríguez



Manuel Rodríguez Patiño



Pedro M<sup>a</sup> Querejeta Jausoro

**Eskerrik asko denoi eta ondo pasa! Zorionak**